


A**l**bistea

- Lasarte-Oriako Aldaz Hertz Klinikak euskara plana abian jartzeko erabakia hartu zuen maiatza hasieran.
- Ordutik hona euskara plana diseinatu dute eta hemendik aurrera plana inplementatzen arituko dira.
- Horretarako, Emun Koop. E-ren laguntza eta aholkularitza teknikoak izan dute.
- Buruntzaldean enpresa hauek dute euskara plana.

- ✦ 1 Fagor Automation Usurbil - Berriola
- ✦ 2 S. Izaguirre
- ✦ 3 Fagor V.Luzuriaga Usurbil
- 4 Aduriz De Lasarte
- 5 Tximela
- ✦ 6 Orona
- ✦ 7 Selak
- ✦ 8 Mondragon Sistemas de Información
- 9 Latz
- ✦ 10 Hator
- ✦ 11 Aldaz Hertz Klinika



E**l**karriketa

- Juanjo Aldaz, Aldaz Hertz Klinikako zuzendari nagusia.**
- **Zer egiten duzue Aldaz Hertz Klinikak?** Enpresak medikuntza sektorean dihardu hertz-klinika bezala. Gure Hertz Klinikak tratamendu odontologiko integral pertsonalizatuak ditugu, hau da, ahoaren zainketa orokorra, ortodontziak eta baita kirurgia eskatzen duten operazio txikiak ere. Hori guztia, merkatuan dauden azken teknika eta teknologia aurreratuenak erabiliz.
 - **Zergatik jarri duzue euskara plana abian?** Gu euskaldunak gara eta eguneroko lanean euskara erabiltzeko aukera eman nahi diogu geure buruari eta bide batez gure bezeroei. Guretzat garrantzi handikoa da gure bezeroei ematen dizkiogun zerbitzu guztiak ahalik eta osoenak izatea, eta horretarako ezinbestekoa da Hertz Klinikaren euskara maila hobetzea.
 - **Zer egin duzue orain arte?** Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko LanHitz programan parte hartzea erabaki genuen. Diagnostiko labur bat egin ziguten eta euskara plan bat abian jartzeko zein aukera genituen azaldu ziguten. Ondoren, lana euskalduntzen esperientzia zabala duen Emunekin jarri ginen harremanetan, eta diagnostiko sakon baten ondoren, hiru urte iraungo duen euskara plana diseinatu digute.
 - **Zeintzuk izango dira zuen helburuak?** Gure helburu nagusia Aldaz Hertz Klinikak euskara eta gaztelania maila berean erabili ahal izateko aukera ematea da, eta bezeroei euskarazko zerbitzua ere eman ahal izatea.



M**o**tzean

“Euskara, eta ekonomia eta enpresaren mundua” izenburuarekin mahai inguru.

- Iruñean egin zen eta hizlariak honako hauek izan ziren:
 1. **Dámaso Munarriz, Nafarroako Kutxa Fundazioko zuzendaria.**
 2. **Elisabet Azkarate, Nafarroako Merkataritza Federazioko kudeatzailea.**
 3. **Sixto Jiménez, enpresaburu eta ekonomilaria.** [Klikatu hemen.](#)
- 2007ko HPSko diru laguntzen ebazpena. [Klikatu hemen.](#)
- Inventario de las TIC en euskera. [Klikatu hemen.](#)
- Euskara telefonian. [Klikatu hemen.](#)
- Programa LanHitz. [Klikatu hemen.](#)
- Lantalan webgunea. [Klikatu hemen.](#)

Z**e**r da...?



Enpresetako hizkuntza politika

Enpresa guztiak dute hizkuntza politika. Enpresa batzuetan modu esplizituan eta beste enpresa batzuetan, aldiz, modu implizituan. Batzuetan kontzienteki hartutako erabakia izan ohi da. Beste batzuetan aldiz ohituren, inertzien eta ezaugarri pertsonalen arabera izan ohi da. Orokorrean, enpresako hizkuntzei buruzko helburuek eta arauak osatzen dute hizkuntza politika. Hizkuntza bakoitzari funtzio batzuk aitortu eta noiz, non, nola eta zenbat erabili behar den zehazten du hizkuntza politikak. Baita adostutako helburuak eta arauak etengabe ebaluatu eta hobetu ere. Enpresetan euskara planak garatzerakoan hizkuntza politika euskara normalizatzeko tresna gisa erabiltzen dugu. Ezarritako hizkuntza politika bezain garrantzitsua da hizkuntza politika adosteko erabili den prozedura.